

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2019ko Amurrio Hiribildua arte lehiaketarako deia, norgehiagoka araubidean, onartu zuen 2019ko abuztuaren 6ko ebazpenaren (2019/499 Dekretuaren) laburpena

BDNS(Identif.): 469584

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, (Dirulaguntzen Lege Orokorra) 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratu da; testu osoa dago aztergai Diru Laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak

Oinarrietako baldintzak betetzen dituzten pertsonak, edozein dela ere haien nazionalitatea edo bizilekua.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da Amurrio Hiribildua arte lehiaketako sarien emakida arautzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Amurrioko Udalak 2019ko apirilaren 25eko osoko bilkuran onartu zituen, eta ondoren haien testu osoa argitara eman zen urte bereko uztailaren 10eko ALHAOn (79. zenbakian).

Laugarrena. Zenbatekoa

Parte-hartzaile guztiek sari orokor hauek jaso ditzakete:

Lehenengo sari orokorra: 4.000 euro eta oroitzapenezko eskultura.

Bigarren sari orokorra: 1.500 euro eta oroitzapenezko eskultura.

Gainera, Amurrioko parte-hartzaileek sari hau jaso dezakete:

Sari lokala: 1.000 euro eta oroitzapenezko eskultura.

Parte-hartzaile bakoitzak sari bat bakarrik jaso ahal izango du.

Bosgarrena. Kartelak aurkezteko epea

“La Casona” erakusketa aretoan (Aldai kalea, 1, 01470 Amurrio – Araba), 2019ko irailaren 2tik 13ra arteko lanegunetan, bi egun horiek barne, 10.00etatik 14.00etara arte. Halaber, posta ziurtatu bidez edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan ezarritako bideetako edozeinez baliatuz aurkeztu ahal izango dira eskaerak. Garaiz eta behar bezala aurkezten diren lanak baino ez dira onartuko izapidetzeko. Bidalitako lanek oinarrietan xedatutakoak bete behar dituzte.

Amurrio, 2019ko abuztuaren 6a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA